



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2019KO MARTXOA

Martxoa, oro har, beroa eta oso lehorra izan zen. Eguraldia negukoa baino udaberrikoa izan zen. Tenperaturaren aldaketa handiak izan ziren, hilabeteko azken herenean izan ezik, orduan ezegonkortasuna nagusitu zen eta egun askotan jarraian zerua garbi egon zen. Muturreko fenomeno meteorologikoei dagokienez, martxoa nahiko lasaia izan zen, ez zen fenomeno bat bestearen gainera nabarmendu, baina ugariak itsasaldeko arriskuagatik izan ziren. Azpimarragarriak dira, baita ere gertatu ziren baso-suteak, izan ere egun horietan sutea zabaltzeko baldintza egokiak izan ziren.

Prezipitazioa

Prezipitazioari dagokionez, martxoa oso lehorra izan zen, kostaldean izan ezik, han lehorra izan zen. Ia EAE osoan urte sasoi horretan ohikoa den prezipitazioaren erdia bakarrik pilatu zen. Hegoaldean ur eskasia handiago izan zen, espero zitekeenaren %30 baino gutxiago pilatu zen. Prezipitazio gehien, ohi bezala, Gipuzkoa ipar-ekialdean pilatu zen, Nafarroako mugan, eta zonalde horretan soilik pilatu ziren 100 mm baino gehiago (Eskas 127.4 mm, Añarbe, 110.9 mm, Ameraun, 108 mm, Berastegi 101.1 mm). Kantauri isurialdeko gainerako estazioetan balio horietatik urrun egon ziren, oro har 40-50 mm pilatu ziren, Gipuzkoa ipar-ekialdetik hurbil dauden eskualdeetan izan ezik (Andoain 84.9 mm, Lasarte 83.8 mm, Ereñozu 82.1 mm). Mediterraneo isurialdean prezipitazioa nabarmenki urriagoa izan zen, Arabako Lautadan 25 mm inguru eta Arabako Errioxan 10 mm baino gutxiago (Moreda 4 mm, Párganos 6.4 mm, Zambrana 10.3 mm).

Euri-egunak hilaren 6tik 20ra bitartean pilatu ziren. Denboraldi hartan kantauri isurialdean 10 inguru izan ziren, ohiko balioetatik ez oso urrun. Mediterraneo isurialdean dezente gutxiago, 2 eta 6 artean, espero zitezkeenak baino 3 gutxiago.

Egun horietako batean ere ez zen izan pilatutako prezipitazioa oso ugaria, hots, 30 mm baino handiagoa. Baliarik altuena, hilaren 8an neurtu zen Aizarnazabalen, 23.4 mm. Alabaina, egunik euritsuena hilaren 19a izan zen, eta prezipitazio kantitatea oso sakabanatua egon zen; ozta-ozta gairatu ziren 20 mm-ak kantauri isurialdean.

Taula 1: Azken urteetan martxoan pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	43.9	95.6	99.5	197.5	139.9	155.4	78.2	51.7	77.7	47.5
Lasarte	83.8	115.8	156.8	246.7	183.5	208.4	103.3	56.0	151.4	43.4
Arrasate	59.9	157.2	131.5	323.2	179.6	255.3	159.3	65.4	141.3	44.1
Abetxuko	23.2	96.3	45.2	96.0	93.3	148.1	98.2	27.8	68.1	26.2
Párganos	6.4	44.5	35.7	77.6	78.4	72.2	114.7	6.9	73.9	14.1



Temperatura

Batez besteko temperaturari erreparatuz, martxoa beroa izan zen. Kostaldean 11-12 °C artekoa izan zen eta Arabako Lautadan 8.5 °C ingurukoa, EAE osoan ohikoa baino 0.8 °C altuagoa.

Hilaren lehen herenean hainbat egun bero izan genituen jarraian. Ondoren, egun hotzak tartekatuz joan ziren.

Hilaren 16a izan zen, oro har, EAeko egunik beroena. Arabako Errioxan, ordea, 24a izan zen, eta kostaldeko zenbait tokitan, berriz, beroenak hilaren 3an neurtu ziren.

Egun horretan, hilaren 16an, temperatura maximoak 30 °C-ra hurbildu ziren kantauri isurialdeko zenbait bailaratan (Eitzaga 29.8 °C, Ibai Eder 29.3 °C, Alegia 29 °C). Aipagarria da hurrengo egunean izan zen maximoen beherakada; estazio horietan termometroek ez zuten ia 13 °C-ren muga gainditu. Barnealdean ez ziren 10 °C-tik pasa.

Minimoei dagokienez, hilaren 21etik 24ra bitartean temperaturaren inbertsio handia izan zen eta izotza bota zuen kantauri isurialde barnealdeko toki askotan; izotz txiki-handia bota zuen. Izotzik handiena hilaren 22an egin zuen (Kanpezu -4.3 °C, Trebiño -4.2 °C, Pagoeta -4 °C, Navarrete -3.9 °C, Albaina -3.8 °C). Egun horietan anplitude termikoa oso handia izan zen.

Temperatura altuez gain, azpimarragarria izan zen intsolazioa, sasoi horretan ohikoa dena baino % 50 altuagoa. Hilaren azken herenean izan zen horrela gehienbat, zerua oskarbi egon baitzen hainbat egunetan.

Taula 2: Martxoan, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	12.3	11.2	12.5	10.9	10.9	12.2	12.4	12.1	12.5	11.8
Lasarte	11.1	10.6	12.0	9.4	9.5	11.1	11.4	11.0	11.4	10.9
Arrasate	9.5	8.3	10.5	7.1	8.0	9.3	8.8	9.7	9.3	9.4
Abetxuko	8.4	7.3	9.4	6.6	7.7	8.4	8.1	8.7	8.4	7.5
Párganos	9.2	7.1	10.3	7.0	8.6	9.0	8.1	10.2	8.2	7.5

Haizea

Hilaren lehen herenean Atlantikoko depresioak izan ziren egoera sinoptikoaren protagonista. Hori zela eta, hegoaldeko haizea nagusitu zen, baina fronteak igaro ziren uneetan haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin zuen. Horiek izan ziren egunik haizetsuenak, hego-mendebaldeko haizearekin bereziki, eta haizeguneeetan 100 km/h-ko abiadura gainditu zen hainbat egunetan.



Aipatzekoa da hilaren 3a (egun horretan neurtu zen ufadarik gogorra: Cerroja 126.6 km/h) eta, orokorrean, baita 6a ere; azken egun horretan hegomendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten hainbat tokitan, eta barnealdeko haizegune batzuetan ufadak 120 km/h ingurukoak izan ziren (Orduña 117.5 km/h, Unzueta 117.1 km/h, Kapildui 116.4 km/h, Gasteiz 114.3 km/h, Oiz 112.5 km/h, Cerroja 110.1 km/h). Ipar-mendebaldeko haizea ez zen hain zakar ibili, barnealdean behintzat, baina itsasoaren egoera kaskartu zuen.

Hilaren bigarren herenean, Kantauri itsasoan presio altuak nagusitu ziren, hilaren 12an izan ezik; orduan hegoaldera aldendu ziren eta Iberiar penintsularen iparraldetik fronte bat sartzea ahalbidetu zuten. Gauza bera gertatu zen hilaren 17an. Bi egun horiek salbu, gainerakoetan Atlantikoko antizikloiak bidalitako iparraldeko haizea nagusitu zen. Ia aldi osoan ipar-mendebaldeko haizeak jo zuen, baina tarteka haize aldakorra edo ipar-ekialdekoa ere ibili zen; azken horiek eguraldiaren hobekuntza ekarri zuten une horietan. Noizbehinka ipar-mendebaldeko haize-ufada oso gogorren bat neurtu zen, bereziki kostaldetik gertu. Hilaren 13an, haizearen eta ipar-mendebaldeko hondoko itsasoaren eraginez, olatu handiak izan ziren.

Azkenik, hilaren azken herenean, antizikloia Britainiar uharteetan edota Europa erdialdean kokatu zen eta azken egunetan lehenengo koadranteko haizea gailendu zen; amaierakoetan, berriz, laugarren koadrantekoa ibili zen. Haizearen intentsitatea ahul-bizia izan zen, bolada gogor batzuekin, lehenengo iparraldekoak edo ipar-ekialdekoak, eta azken egunetan hegoaldekoak edo hego-ekialdekoak.

Analisia

Martxoaren 1a eta 2a

Martxoa aldaketa batzuekin hasi zen. Otsaileko bigarren hamabostaldian nagusi izan zen blokeo egoera desagertu egin zen, nahiz eta presio altuen eraginpean jarraitu. Azoreetako antizikloia Iberiar penintsularen hegomendebaldetik Bizkaiko Golkora hurbildu zen. Hilaren 1ean oso ahulduta iritsi zitzaigun fronte hotz batek hodeiak ekarri zitzaizkigun goizean, baina arratsaldean giro eguzkitsua nagusitu zen. Hilaren 2an ere antzeko zerbait gertatu zen, fronte hotz oso ahul batek ipar isurialdea ukitu zuen; goizean hodeiak izan genituen, bereziki ekialdean non tanta batzuk bota zituen. Arratsaldean oskarbi geratu zen denean.

Martxoaren 3tik 5era

Hilaren 3an presio altuak hegoaldera mugitu ziren eta hainbat depresio 50 °l paraleloan mugitu ziren. Depresioen eta antizikloiaren arteko gradientearen ondorioz mendebaldeko fluxua indartu egin zen. 500 hPa-eko mailan zirkulazio zonala nabarmenagoa zen; Kantauri osoan isohipsen gradientea oso handia



zen. Hilaren 3an hego-mendebaldeko haizea indartu egin zen eta arratsalde-gauean hainbat estaziotan haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten. Haizearen indarrak eragin zuzena izan zuen baso-sute batzuen sorreran eta zabalkuntzan, bereziki Bizkaia mendebaldean. Hilaren 3an, azken orduetan eta hilaren 4an, lehen orduetan, fronte hotz batek eguraldiaren aldaketa ekarri zuen; haizeak ipar-mendebaldera zakar egin zuen kostaldean eta euri txikia egin zuen; baso-suteak mendean hartu eta itzaltzeko lagungarria izan zen. Eguraldi aldaketak oso gutxi iraun zuen, izan ere frontearen ondoren ziri antizikloniko bat sartu zen eta eguraldiak egonkortzera egin zuen. Hilaren 5ean eguraldia egonkorra izan zen, zerua hodei gutxirekin egon zen eta hego-mendebaldeko haizea ibili zen; arratsalde-gauean haizea indartu egin zen eta kantauri isurialdean tenperatura maximoek 20 °C-ak gainditu zituzten leku askotan.

Martxoaren 6tik 8ra

Hilaren 6an, erdigunean 984 hPa-eko presioa zuen eta hainbat fronte loturik zituen depresio oso sakon bat Galizia ipar-mendebaldean kokatu zen; 500 hPa-eko mailako zirkulazio indartsuaren barnean sortu zen ibar baten isla zen, hain zuzen. Hego-mendebaldeko haizea indartsua zen eta hainbat frontek Iberiar penintsula osoa zeharkatu zuten mendebaldetik ekialdera; hala ere, nahiko ahulduta iritsi ziren EAera. Zeruan hodeiak izan ziren nagusi eta tenperatura altua izan genuen; goizean erdi mailako hodeiak eta goi-hodeiak nagusitu ziren eta arratsaldetik aurrera behe-hodeiak agertu ziren. Fronte bat hurbiltzerakoan, haize-erauntsien lerro bat sortu zen eta gure lurraldea mendebaldetik ekialdera zeharkatu zuen; trumoi-ekaitz batzuk ere izan ziren. Azpimarragarriena haizea izan zen, adibidez Gasteizko estazioan 115 km/h-ko haize-bolada neurtu zen. Frontea pasa ondoren, arratsalde-gauean haizeak ipar-mendebaldera egin zuen eta zaparradak batik bat kostaldean bota zituen egun amaieran. Zirkulazio zonalean murgilduta, depresio bat pasa eta bestea iritsi bitartean, hilaren 7an eguraldiak hobera egin zuen. Goizean zerua hodei gutxirekin egon zen eta hego-mendebaldeko haizea ibili zen, aurreko egunean baino ahulago. Zerua nahiko garbi egon zenez, goizaldean hotz egin zuen barnealdean, eta Arabako zenbait lekutan izotz txikia egin zuen. Arratsaldean, beste frontea iritsi zenean, hodeiak ugaritu egin ziren eta azken orduetan euria egin zuen. Hilaren 8an, egunaren lehen partean, euria egiten jarraitu zuen, zenbait momentutan euri ertaina eta, adibidez, Aizarnazabalen 23 mm pilatu ziren. Alabaina, arratsaldean hodeiak gutxitu egin ziren eta gauean zerua hodei gutxirekin geratu zen.

Martxoaren 9a

Hilaren 9an Azoreetako antizikloia ziri moduan sartu zen Kantaurin eta, nahiz eta goizean goiz behe-hodei ugari izan ipar isurialdean eta zirimir pixka bat egin, goizean hodeiak nabarmen gutxitu ziren eta tenperatura nabarmen igo zen; leku askotan tenperatura maximoek 20 °C-ak gainditu zituzten.



Martxoaren 10a eta 11a

Hilaren 10ean Azoreetako antizikloia iparraldera luzatu zen pixka bat eta ekialdeko hegaletik fronte hotz luze bat mugitu zen. Horrela, eguna giro egonkor eta lasaiarekin hasi zen, baina orduak aurrera egin ahala hodeiak ugaritu egin ziren eta zerua estalita geratu zen arratsaldean; euria egin zuen, batez ere ipar isurialdean. Fronte hotza pasa ondoren, hilaren 11n presio altuak Kantaurira luzatu ziren berriro ere eta pixkanaka eguraldiak hobera egin zuen.

Martxoaren 12tik 15era

Hilaren 12an, egunaren hasieran zerua hodei gutxirekin zegoen, baina eguna aurrera joan ahala hodeiak ugarituz joan ziren. Egunaren bigarren partean 500 hPa-eko mailan zegoen aska baten ondorioz lurrazalean Atlantikoko fronte hotz bat sortu zen, eta hark Kantauri itsasoa zeharkatu zuen; orduan, haizeak ipar-mendebaldera egin zuen. Arratsalde-gau partean denean egin zuen euria, batez ere iparraldean. Aska eta frontea pasa ostean, itsasaldeko aire-masa polar bat zabaldu zen gurean eta 850 hPa-eko mailan airearen tenperatura -3 °C ingurura jaitsi zen. Lurrazaleko tenperaturak ere beheara egin zuen eta zaparradak egun osoan bota zituen, elur-kota 900-1000 m inguruan zegoela. 500 hPa-eko mailako gailurraren isla gisa, lurrazalean Azoreetako antizikloia zabaldu zen, erdigunean 1040 hPa-eko presio maximoa zuena. Hilaren 14an presio altuak ekialdera aldentu ziren, baina ipar-mendebaldeko haizea ibili zen eta zerua hodeitsu egon zen; iparraldean euri txikia egin zuen. Hilaren 15ean eguraldiak egonkortzera egin zuen; presio altuak Bizkaiko golkoan zabaldu ziren eta zerua garbi geratu zen.

Martxoaren 16a

Hilaren 16an lurrazaleko antizikloia ekialdera mugitu zen eta 850 hPa-eko mailan airearen tenperatura 10 °C ingurura igo zen. Haizea hegoaldera aldatu zen eta zerua oskarbi egon zenez, kantauri isurialdeko hainbat tokitan tenperatura maximoak 25-27 °C ingurukoak izan ziren. Gauean kostaldean haizea ipar-mendebaldera aldatu zen eta behe-hodeiak sortu ziren.

Martxoaren 17tik 20ra

Hilaren 17an antizikloia Mediterraneo itsasoan kokatu zen eta 500 hPa-eko mailan beste aska bat iritsi zitzaigun mendebal/ipar-mendebaldetik, fronte hotz luze batekin batera. Haizea ipar-mendebaldera aldatu zen eta zerua oso hodeitsu egon zen; euri txikia egin zuen, batez ere kantauri isurialdean. 850 hPa-eko mailan aire-masa hotz batek hartu zuen aire-masa epelaren lekua, eta 10 °C-ko tenperatura izatetik -2 °C-ko tenperatura izatera pasa ginen. Hilaren 18an Azoreetako antizikloiak ipar/ipar-mendebaldeko haizea ibilarazi zuen; zaparradak bota zituen noizbehinka eta elur-kota 800-1000 m inguruan egon zen. Hilaren 19an antizikloiaren eragina areagotu egin zen eta aire-masa hotza ekialdera mugitu zen. Zeruan hodei ugari agertu ziren eta zaparradak botatzen jarraitu zuen, baina gero eta sakabanatuagoak. Hilaren 20an zubi antizikloniko handia sortu zen, bi gune ezberdinekin, 1030 hPa-eko bat Alemanian eta 1035 hPa-eko beste bat Galizia mendebaldean; zubia 500 hPa-eko mailan ezarritako



blokeo indartsu baten isla zen, gailurra ekialdetik mendebaldera luzatuta zegoen, Aljeria eta Tunisian askatutako depresio bat bat kokatzen zen bitartean. Eguna aurrera joan ahala eguraldia nabarmen hobetu zen; egunsentian hodeiak ugariak izan ziren eta mendebaldean zaparrada txikiren bat bota zuen. Arratsaldean haizea ipar-ekialdera aldatu eta zerua oskarbi geratu zen.

Martxoaren 21etik 24ra

Hilaren 21etik aurrera presio altuak gailendu ziren. 500 hPa-eko mailan erronbo itxurako blokeoa sortu zen, gailurra Atlantikotik Europa erdialdera hedatuta zegoen, eta goi-geruzan askatutako depresio bat Aljerian eta Tunisian. Lurrazalean goi-geruzan askatutako depresioak ez zuen islarik izan, depresio txiki bat baino ez, fronte okluito batzuk loturik zeuzkala. European antizikloia izan zen nagusi, eta hilaren 21ean eta 22an 1039 hPa-eko presioa izan zuen erdigunean. Egun guzti haietan zerua oskarbi edo hodei gutxirekin egon zen eta temperatura maximoek gora egin zuten, batez ere hilaren 21ean eta 20an, egun horietan altuenak 20 °C-tik gorakoak izan ziren hainbat tokitan. Temperatura minimoak, aldiz, baxuak izan ziren eta Araban izotza egin zuen, baxuena hilaren 22an Kanpezun neurtu zen, -4.3 °C.

Martxoaren 25a eta 26a

Astehenean, hilak 25, ez zen aldaketa handirik izan egoera sinoptikoan, baina haizea ipar/ipar-ekialdera aldatu zen eta Frantziatik etorritako fronte hotz ahul samar batek behe-hodei ugari ekarri zituen, batez ere egunaren hasieran eta amaieran, eguneko erdiko orduetan ostarte zabalak agertu ziren. Fronte hotz ahul horren ostean, aire-masa aldatu eta hilaren 25ean 850 hPa-eko mailan temperatura 8-9 °C ingurutik 0 edo -1 °C ingurura jaitsi zen. Lurrazalean temperatura nabarmen jaitsi zen, beraz, batez ere barnealdean. Hilaren 26an eguraldia egonkorra izan zen berriro ere, eta zerua oskarbi edo hodei gutxirekin egon zen; ipar-ekialdeko haizea fina ibili zen eta, horregatik, giroa freskoa izan zen.

Martxoaren 27tik 31ra

Martxoaren amaieran eguraldia antiziklonikoa eta egonkorra izan zen. Presio altuen gerriko bat Azore uharteetatik Europa ekialderaino luzatu zen eta Iberiar penintsulan ekialdeko haizea izan zen nagusi. Hilabetearen azken egunetan Kanariar uhartean inguruan zebilen aire hotzezko poltsa bat Penintsulara hurbildu zen eta hegoaldean presio altuek indarra galdu zuten; horrela, Penintsularen hegoaldean eta Mediterraneoan depresio erlatibo bat garatzen hasi zen. Egun haietan hodei gutxi izan genuen zeruan eta eguerdi aldera giro epela izan zen, goizean goiz, ordea, hotz egin zuen eta barnealdeko zenbait lekutan izotza egin zuen. Azken egunetan barnealdean bero-hodei batzuk garatu ziren, lehen aipatutako aire hotzezko poltsa hori hurbil ibili zelako.








Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2019ko martxoko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak.
Deusto	12.3	17.1	24.3	8.3	5.3	0	43.9	14.1	10
Lasarte	11.1	16.4	25.7	6.1	2.8	0	83.8	18.8	10
Arrasate	9.5	16.4	26.4	3.4	-0.7	2	59.9	16.6	10
Abetxuko	8.4	15.9	23.8	1.4	-2.4	10	23.2	8.2	6
Párganos	9.2	16.1	22.5	3.3	-1.3	1	6.4	2.8	3




Eguneko tenperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
 Temperatura minimoa
 Batez besteko tenperatura
 Temperatura maximoa

Prezipitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezipitazio normala
Precipitación normal



Prezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko egoerak

Martxoan 15 abisu hori igorri ziren: 2 elurragatik, 3 haizeagatik haizeguneetan, 5 olatuen altueragatik nabigaziorako, 1 kostaldean inpaktuagatik, 1 izotzagatik eta 3 baso-sute arriskuagatik.

- Hilaren 3an Britainiar uharteen iparraldean zegoen depresio batek hegomendebaldoko haize gogorra eragin zuen gurean, batez ere egunaren bigarren partean eta Bizkaiko mendi inguruetan (Cerroja 126.6 km/h, Orduña 113.9 km/h, La Garbea 109 km/h, Unzueta 103.4 km/h), , egunaren amaieran Arabako eta Gipuzkoa barnealdeko zenbait lekutan ere bai (Ordizia 87.8 km/h, Zegama 84.7 km/h). 850 hPa-eko mailan Penintsula Iberikoan aire-masa bero bat zabaldu zen, arratsaldean 10-12 °C inguruko tenperaturarekin. Temperatura maximoak altuak izan ziren, beraz baso-suteak sortzeko egoera aproposa izan zen. Arratsaldean zenbait baso-sute piztu ziren, batez ere Enkarterrietan. Baso-suteen artean Muskizen piztu zena nabarmendu behar da. Hilaren 4an, goizaldean, haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zen eta indarra galdu zuen.

Estazioa	Hilak 3 km/h
Cerroja	126.6
Orduña	113.9
La Garbea	109
Punta Galea	108
Unzueta	103.4
Igorre	93.8
Ordunte	91.7
Ordizia	87.8
Deusto	86.4
Zegama	84.7
Galindo	83.5

Igandea, hilak 3: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 18etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 10etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 4an, goizean goiz fronte hotz batek Kantauri itsasoa zeharkatu zuen eta mendebal/ipar-mendebaldoko haize-bolada gogorrak izan ziren. Aurretik aipatutako depresioak sortutako hondoko itsasoa kostaldera heldu zen eta goizaldean olatuen altuera adierazgarria igo egin zen (Pasaiako Portua, 4.02 m 09:00etan UTC). Arratsaldean olatuen altuera 3 eta 3.5 metro artekoa izan zen, azken orduetan behera egin zuen.

Astelehena, hilak 4: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 06etatik 24etara ordu lokala.



- Hilaren 5ean eta 6an beste depresio baten eraginpean geratu ginen; hasieran Britainiar uharteen hego-mendebaldean zegoen eta gero Ipar itsasora mugitu zen. Haizeak hego-mendebaldetik jo zuen eta hilaren 5ean ipar-mendebaldeko haizeguneetan haize-boladak 90-100 km/h ingurukoak izan ziren (Orduña, 109 km/h, La Garbea 100.5 km/h). Hilaren 6an, gainerako tokietan ere haizea indartu egin zen, batez ere Araban (aipatu behar da Gasteiz estazioan neurtutako bolada, 114.3 km/h-koa). Tenperatura altua izan zen berriro ere, Kantauri itsasoan aire-berozko mihi bat zabaldu baitzen (hilaren 6an, 10 °C inguru 850 hPa-eko mailan). Kantauri isurialdean tenperatura maximoak 20 °C ingurukoak izan ziren. Baso-sute ugari piztu ziren, batez ere Bizkaian.

Estazioa	Hilak 6 km/h
Orduña	117.5
Unzueta	117.1
Kapildui	116.4
Gasteiz	114.3
Oiz	112.5
Cerroja	110.1
Herrera	106.2
Jaizkibel	104.8
Punta Galea	103
La Garbea	101.3
Iurreta	101.3
Ordizia	100.9

Asteartea, hilak 5: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 10etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 18etatik 24etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 6: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 15etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 13an olatuen altuera adierazgarria igo egin zen eta arratsalde-gau partean 3.5 m-tik gorakoa izan zen (Pasaiako Portua, 4.56 m. 20:00etan UTC). Hilaren 14an, goizaldean eta goizean goiz, behera egin zuen eta ia arratsalde-gau parte osoan 3.5 m-tik behera egon zen.

Asteazkena, hilak 13: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 06etatik 24etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 14: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 15etara ordu lokala.

- Hilaren 17an, arratsalde-gau partean, aire-masa hotz bat zabaldu zen Kantauri itsasoan eta tenperaturak behera egin zuen. Hilaren 18an 850 hPa-



eko mailan tenperatura $-2\text{ }^{\circ}\text{C}$ ingurukoa izan zen, hilaren 19an ere $0\text{ }^{\circ}\text{C}$ -tik behera mantendu zen. Hasieran zaparrada txikiak bota zituen, kantauri isurialdean gehienak; hilaren 18an, goizaldean, gero eta handigoak bota zituen eta Mediterraneo isurialdera ere hedatu zen prezipitazioa. Egun horretan Bizkaia erdialdean eta isurialdeen arteko banalerroan egin zuen euri gehien (Igorre, 16.7 mm) eta elur-kota $800\text{-}1000\text{ m}$ inguruan egon zen. Hilaren 19an prezipitazioa kantauri isurialde osoan egin zuen (Arboleda, 19.9 mm) eta elur-kota 1000 m inguruan egon zen. Hilaren 20an, egunaren hasieran elur-kota 1000 m -tik gora kokatu zen.

Astelehena, hilak 18: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.
Asteartea, hilak 19: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 20an, aurreko egunetako elurte tixikien ostean, goizaldean eta goizean goiz zerua garbi egon zen eta barnealdeko zenbait lekutan izotza egin zuen (Antoñana, $-0.8\text{ }^{\circ}\text{C}$), baita eguneko azken orduetan ere.

Asteazkena, hilak 20: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokal.

- Hilaren 21ean, arratsaldean, olatuen altuera adierazgarria 1.5 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa, $15\text{-}16\text{ s}$ -koa. Itsasgora $17:03$ an (ordu lokala) 4.66 m -ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $l=6\text{ m}$ eta $l_{\text{max}}=6.3\text{ m}$.

Osteguna, hilak 21: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 16etatik 18etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.